

LENGUA Y LITERATURA VASCAS

Nire *Aitaren etxea* deseraikiko dut: generoak familiako harremanen eraikuntzan duen eragina

Karmele Jaioren eleberrian

I Will Deconstruct My Father's House: The Impact of Gender on Family Building in Karmele Jaio's Novel

LOREA AZPEITIA ANTA¹

UPV/EHU

lorea.azpeitia@ehu.eus

Recibido: Mayo de 2022. Aceptado: Junio de 2022

Laburpena: Artikulu honen helburu nagusia, kritika feminista eta literatur kritika feminista uztartuz, *Aitaren etxea* eleberriko pertsonaien artean sortzen diren familia harremanetan generoak duen eragina aztertzea izango da. Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea» poema argitaratu zenetik ia hirurogei urte igaro diren honetan, oso bestelakoak dira «aitaren etxeari» buruzko gogoeta garaikideak, txikitatik jasotzen ditugun genero-mandatuen jabetze prozesua *continuum* bat izanik Jaioren eleberri osoan zehar. Analisi honetan mandatu horien eraikuntza/deseraikuntza prozesua deskribatzen ahaleginduko gara, horretarako pertsonaia nagusiek sentitzen dituzten deserosotasunei, zamei, erruei eta beldurrei erreparatuz. Azkenik, eleberriaren amaieraren esanahiari buruz egingo dugu gogoeta.

Hitz gakoak: Euskal literatura garaikidea, identitatearen eraikuntza, genero ikuspegia, literatur kritika feminista

Abstract: The main aim of this article, which combines feminist criticism and feminist literary criticism, is to examine the impact of gender on the family relationships that emerge between the characters in the novel *Aitaren etxea* [Father's house]. Almost sixty years after the publication of Gabriel Aresti's poem «Nire aitaren etxea» [My father's house], contemporary reflections on that topic are very disparate in Jaio's novel. The process of acquiring gender

¹ Ikertzaile hau Eusko Jaurlaritzak kudeatutako Doktorego Aurreko Programako laguntza-
ren onuraduna da.

mandates is a continuum throughout the novel. In this analysis, we will try to describe the process of construction/deconstruction of these mandates, considering the inconveniences, burdens, faults and fears felt by the main characters. Finally, we will reflect on the meaning of the novel's ending.

Key words: Contemporary Basque Literature, identity construction, gender perspective, feminist literary criticism

I.- SARRERA

Artikulu honen asmoa Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (Elkar, 2019) eleberraren analisiaren bidez familiako kideen arteko genero harremanen dinamike-tan sakontzea da, eleberri honek dinamika horien irakurketa kritiko feminista ahalbidetzen duelakoan. Eleberri honek harrera beroa izan du bai irakurleen partetik eta baita kritikaren partetik ere, besteak beste, 111 Akademia Saria (2019), Nafarroako Liburu Denden Elkartearen euskarazko libururik onenaren saria (2019) eta Euskadi Literatura Saria (2020) irabazi baititu. Harrera kritikoari dagokionez, zortzi prentsa literatur kritika jaso ditu eta hiru kritika akademiko.

Aitaren etxean askotariko gaiak lantzen badira ere, artikulu honetan genero aldagaiak familiako kideen arteko harremanetan duen eragina aztertuko dugu, genero identitatearen eraikuntzaz eta deseraikuntzaz arituko garelarik. Horretarako, lehenik eta behin familiarik kuestionatu gabe jasotako genero mandamentu patriarkalez arituko gara. Bigarrenik, generoak dinamika horietan duen pisuak sortutako zamez, deserosotasunez, erruduntasun sentimenduez eta bel-durrez arituko gara, eraikitako identitate horien deseraikuntzarako bidea eginez. Azkenik, analisi honetatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu. Azterketa hori egiteko baliatuko dugun metodologiari dagokionez, kritika feminista eta literatur kritika feminista uztartuko ditugu. Labur esanda, kritika feminista ideologia sozialen analisian oinarritzen da eta literatur kritika feministak, berriz, ideologia eta praktika sozial horiek literatur testuan duten eragina aztertzen du. Bi disziplinen arteko uztartze horrek aukera ematen digu, besteak beste, identitate indibidual eta kolektibo zein genero identitateei buruz hausnartzeko eta desberdintasunak gainditzeko helburuz sortutako praktika politikoaren inguruko teoriaren legitimazioan aurrera pausoak emateko (Segarra + Carabí 2000). Pertsonaien azterketa gauzatzeko, aldiz, narratologiak eskainitako baliabideetan oinarrituko gara. Literatur teoriaren esparruan pertsonaiaren azterketa da, Mieke Bal (2004: 32) adituaren aburuz, espazioarekin batera, narratologian okerren aztertu den alderdia. Literatur teoriaren eskuliburuak azterketa luze eta sakonak egin dituzte fikziozko testu narratiboetako pertsonaien tipologiari buruz, eta, kasu gehienetan, literatur lanetan errepikatu ohi diren ezaugarrien zerrenda xumeetara mugatu ohi da azterketa horien emaitza (sinpleak/konplexuak, lauak/biribilak, estatikoak/dinamikoak, etab.). Zerrenda horiek ia beti binomioz osatzen dira, eta horrek obra garaikideetan ageri diren pertsonaia konplexuak xehe-tasunez aztertzea zailtzen du, azterketa narratologikorako baliatu diren tresnak berritzeko beharra iradokitzeaz batera (Gaseni + Esparza 2015: 26). Gainera, narratologia feministaren esparrutik kritikatu izan da teoria narratiboen ereduak

literatur testuen azterketatik eratorri direnez, horretarako hautatu diren autore eta corpusak ere esanguratsuak direla eta, beraz, testu horien gainean eraikitako teoriak ere badutela genero aldetik zeresanik (Page 2007).

Pertsonaien azterketari dagokionez, beren inguruko informazioa iturri desberdinetatik iristen zaigu eta, Bobes Navesen arabera (1983: 156), hiru dira iturri posible horiek:

1. Narratzaileak pertsonaiari buruz ematen dituen datuak
2. Hasieran hutsik egon ohi den izen batekin aurkezten den pertsonaia bere ekintzen, hitzen eta harremanen bidez esanahia bereganatzen doa
3. Beste pertsonaia batzuek berari buruz diotena, eta harekin eraikitzen duten harremana. Soilik kontakizunaren amaieran izango ditu irakurleak pertsonaia irudikatzen duten datu guztiak, eta soilik obraren amaieran eman dezake ezagutza prozesu hori amaitutzat; izan ere, testuan zehar aldatzen jarrai dezake, eta, maiz, amaierak ematen die koherentzia eta zentzua kontakizuneko elementu guztiei.

Azken informazio iturri horrekin lotuta, pertsonaien karakterizazioari erreparatzean garrantzitsua da gainontzeko pertsonaiekin sortzen dituzten harreman sareak kontuan hartzea. Bobes Navesek (1983: 161-163) azaltzen duenaren ildotik, kontakizunean zehar pertsonaiaren inguruan harilkatzen diren harreman-sareak bere izaeraren luzapen gisa jokatzekoa dute, izan ere, pertsonaiaren ezagutza ez baita haren barne-munduan soilik oinarritzen: pertsonaia bakoitzak integratzen den edo baztertzen duen talde sozialaren baitan egiten dituen adierazpenak ere kontuan hartu behar dira. Pertsonaien karakterizazioa, halaber, zuzena edo zeharkakoa izan daiteke. Karakterizazio zuzenari dagokionez, bi motatakoa izan daiteke: *autokarakterizazioa*, hau da, pertsonaiak bere buruari buruzko ezaugarriak azaltzea, edo *heterokarakterizazioa*, hots, informazio hori narratzaileak edo beste pertsonaia batek edo batzuek ematen dutenean. Aitzitik, karakterizazioa zeharkakoa izango da pertsonaiaren ekintzetatik, hizketetatik eta pentsamenduetatik deduzitzen direnean (Bobes Naves 1993). Aitzitik, Michael Toolanen arabera (2001), pertsonaiak hitzen bidez eraikitzen dira testuan, eta irakurleak hitz horiek irakurri ahala pertsonaiaren irudi mentala eraikitzen du, eta irudi mental hori irakurleak bere benetako munduan oinarrituta sortzen du, beraz, sexuari, generoari eta sexualitateari buruz duen pertzepzioak eragina du prozesu horretan.

Eskuartearen dugun eleberria aztertzeko, ordea, ezinbestekoa zaigu Euskal Herriko testuinguru soziopolitiko garaikideari erreparatzea *Aitaren etxea*, bate-tik, bertan girotuta dagoelako eta, bestetik, egungo egoera horren eragina nabarmentzen baita bertan planteatzen diren gogoetetan. Lasarteren eta Perales-Fernández-de-Gamboaren esanetan (2021), eleberrian generoaren gaia *continuum* bat da, eta pertsonaia bakoitzak generoaren eraginaren kontzientzia hartzea modu desberdinean bizi du, bakoitzak bere erritmoan, beren bizitzetan, erabakietan, bizitza publikoan zein intimoan nola eragiten duen deskubritzen doazen heinean. Ez da kasualitatea, ordea, Karmele Jaioren eleberrian generoaren gaiak duen presentzia, azken finean, generoaren inguruko gogoetak oso presente daukade Euskal Herri garaikidean. Ildo horretatik, Euskal Herriaren historia eta giro

soziopolitiko garaikidea baldintzatu duten bi gertakari erabakigarri aipatuko genituzke: batetik, 2011. urtean ETAk behin betiko armak uzteko erabakia hartu izana eta horrek ekarriko lukeen «euskal gatazkaren» amaiera, eta, bigarrenik, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren gorakada. Joera aldaketa hori, hots, Euskal Herriaren nazio-gatazkak zentraltasun apur bat galdu izana eta feminismoak indarra hartu izana, eleberriaren izenburuan bertan ikus dezakegu. Izenburua irakurri bezain laster Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea» poema burura etorriko bazaigu ere, berehala ulertuko dugu, gutxienez, «obretan» dagoen etxeaz arituko zaigula Jaio. Izan ere, nazio zapalduaren aldeko borroka aldarriaren sinbolotzat jo izan den poeman defendatzen den «aitaren etxeak» oso bestelako esanahia hartuko du, oso bestelako ikuspegitik erreparatzen baitzaio, genero ikuspegitik, alegia. Eleberriaren hasieran irakur dezakegun eskaintzak, hain zuzen, horretara bideratzen gaitu². Aurrerago jakingo dugu etxe hori kartzela izateraino heldu dela aita horren emaztearentzat, «seigarren eskubiko kartzela» (142).

Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea» *Harri eta Herri* poesia-bilduma famatuan argitaratu zen eta, Lourdes Otaegi (2019: 794) adituaren arabera euskal identitatearen irudikapenetan funtsezkotzat jo genezakeen testuetako bat da. Horretaz gain, euskal memoria kolektiboaren leku adierazgarri gisa identifikatzen du Otaegik (*ibid.*), beste hainbat elementurekin batera, denak ala denak gizonek sortuak:

Hartan, Arestik aitaren etxea deritzana, Lizardiren asaba zaharren baratzea bera da, baina haren egoera aldatua da, erabat. Arestik arerioak erasotzen duen etxeari eustez eta azken mugetaraino defenditzeaz hitz egiten du. Modu grafiko horretan irudikatu zuen Arestik gerraosteko euskal etxea, aberri erasotu eta eskastu baten gisan, haren defentsan dena ematea eskatzen dion konpromiso baten aldarri gisa. Horregatik ez da harrigarri izen bereko Eduardo Txillidaren eskultura Gernikako Juntetxeko lur sailean kokatua egotea, balio sinboliko bera baitute, Iparragirreraren Gernikak, Lizardiren asaba zaharren baratzeak eta Arestiren aitaren etxeak, hirurak elkartzen direnez euskal memoria kolektiboaren lekurik adierazgarriena den Gernikan (Otaegi 2019: 794).

Ildo horretatik, Retolazak eta Sarriugartek (2015: 7) azpimarratzen dute euskal poeta gehienek, beren proposamen poetikoak gorabehera, erreferentzia egin izan diotela Gabriel Arestiri eta ia poeta guztiek autoritate eztabaida ezintzat dutela³. Autoreen aburuz (*ibid.*) egitate horrek, bere obra poetikoarekin loturik, Aresti aita poetikotzat jotzea ekarri du:

Esan dezakegu, beraz, Gabriel Aresti aita poetiko bat dela, oso gutxitan zalan-tzan jarria, seguru asko figura mitikoa delako, erresistentziaren ikur ere birlakatu delako (frankismoaren aurkako eta euskararen aldeko borrokekin estuki lotutako poeta baita) (Retolaza + Sarriugarte 2015: 7).

² «Gizon berriei. Iñigo Muguruzari».

³ Arestiren obra eta, zehazki, «Aitaren etxea» poema genero-ikuspegitik aztertu dute Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek. Ikus bibliografia.

Laburbilduz, esan genezake Arestiren autore-figura batez ere bi zimenduren gainean eraikia izan dela: batetik, patriarka-profeta gisa eta, bestetik, martiri-heroi gisa, eta figura horiek, era berean, bere obra osoa baldintzatu dutela, Arestiren ekarpen poetikoak irudi horien guztien mesedetan irakurri izan direlako orain arte (Retolaza + Sarriugarte 2015: 11). Hala eta guztiz ere, komeni da Arestiren obratik belaunaldiz belaunaldi transmititu eta egundaino iritsi diren elementuak era kritikoan analizatzea. Honela mintzo dira Retolaza eta Sarriugarte:

Imajinario poetiko hori 60ko-70eko hamarkadako giroan gorpuztu bazen ere, Gabriel Arestiren poema edo lelo poetiko zenbaitek imajinario kolektibora egin dute jauzi, eta belaunaldiz belaunaldi iraun du transmisioak (diskurtso kultural zein politikoen bitartez —kantuak, lelo poetikoak, eta abar—). Transmisio-diskurtso horietan garaturiko pentsamendua eta mundu-ikuskeraztertzea garrantzitsua da, diskurtso horietan ere genero-irudikapenak erakitzen direlako, eta izan ere, transmisio-ekintza horiek iraunarazi dutelako Arestiren poetika bizirik. Gainera, Arestiren poemak baino gehiago hedatu dira bere poetikaren inguruko diskurtsoak, edo lelo poetiko zenbait (Retolaza + Sarriugarte 2015: 12).

«Nire aitaren etxea» poemari genero ikuspegitik erreparatzen badiogu, ordea, berehala ohartzen gara, gutxienez, patriarkatuaren esanahia bete-betean kunplitzen dela, hots, etxe horren aginpidea aitak duela, gizonak. Poeman kosta ahala kosta «aitaren etxea» defendatzeko deia zabaltzen du Arestik, funtsean, ahul egon daitekeen Euskal Herria kosta ahala kosta defendatzekoa. Hala eta guztiz ere, genero ikuspegitik erreparatuta, zenbait galdera sortzen dizkigu poemaren irakurketak: Ez al da gainontzekoena, ere, etxe hori? Denentzat al da bizigarria etxe hori? Nork du etxe hori defendatzeko zilegitasuna eta nork ez? Ez al dago biolentziarik etxe horren barruan? Ildo horretatik, gaurkotasunetik egingandako irakurketa kritiko gisa interpreta genezake Karmele Jaioren *Aitaren etxea* eleberria, etxe barruko trapu zikinak bistan jartzeaz gain, borrokatu beharreko otsoak oso bestelakoak direla aditzera ematen baitu autoreak. Esan bezala, Arestik bere poema famatuan aitaren etxea otsoen kontra defendatzeko dei egin bazien euskaldunei, oso bestelako otsoetatik defendatu beharko dira Jaioren eleberriko pertsonaiak, bertako otsoak, hezur haragizko gizakiak baitira, emakumeen erasotzaile potentzialak: «Ez gaituzte gehiago bortxatu, estrategia batzuk izan garelako. [...] Ez digute gauza gehiago egin, beldurrean heziak izan garelako eta beldurrak babestu gaituelako. Beldurrarekin defenditu garelako. Otsoen kontra» (41-42).

Gauzak honela, Jaioren ekarpena testuinguru sozial, kultural eta politikoa konkretu baten baitan kokatu behar dugu. Gaur egun, esan genezake feminismoa Euskal Herrian dagoen mugimendu sozial eta politikorik emankorrena edo, behintzat, bizienetarikoa dela. Horren adibide gisa aipa genitzake, batetik, azken urteotan antolatu diren herri-ekimen gero eta jendetsuagoak eta, bestetik, pentsamendu feministaren egituratze teoriko eta sorkuntza kulturalaren inguruko hausnarketa kritikoak. Ekarpen horretan aipagarria litzateke zenbait argitaletxeren lana (Lisipe eta Eskafandra bildumak, Edo! Argitaletxea etab.).

Elementu horien guztien baturak testuinguru aproposa sortu du, besteak beste, euskal kultur sorkuntzari buruzko hausnarketa kritiko feministak egituratzeko. Gauzak honela, euskal kultur sorkuntzari buruz genero ikuspegitik egindako analisiak dagokienez, 2019. urtea urte oparoa izan zen, besteak beste, bertsolaritzaren, literaturaren eta antzerkiaren inguruko gogoetak argitaratu baitziren: Uxue Alberdiren (2019) *Kontrako eztarritik*, Miren Artetxeren eta Ane Labakaren (2019) *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*, Eider Rodriguezen (2019) *Idazleen gorputzak* eta Eneritz Artetxeren (2019) *Karanbola hirukoitza* ditugu horren adibide.

Literaturaren esparruari dagokionez, feminismoaren presentziari esker ahizpatasuna, saretzea, eta ahalduntzea bezalako kontzeptuak gero eta presentago daude, eta euskal emakume idazleak beren bizipenak, sentazioak, gogoetak eta abar partekatzeko espazioak sortzen ari dira. Horren adibide dugu Eider Rodriguezen (2019) *Idazleen gorputzak* lana. Bideanabar, komeni da gogoan izatea argitalpen horren aurretik Ana Urkizak 2006an *Zortzi unibertso, zortzi idazle* elkarrizketa eta gogoeta bilduma argitaratu zuela⁴. Literatur ikerketaren esparruan egiletza aztertzeke joera berpizten ari den honetan (Pérez + Torras 2015; Egaña 2021), Urkizaren eta Rodriguezen lanen baturak aukera eskaintzen du euskal literaturan emakume gisa irakurriak diren idazleen sorkuntza prozesuei buruz gogoeta egiteko. Hala eta guztiz ere, eleberri honek gai horren inguruan hausnartzeko parada eskaintzen badu ere, artikulua luze luze medio, ez dugu gai hori hemen jorratuko. Lerrootan garatuko dugun analisia, beraz, pertsonaien arteko genero-harremanetan zentratuko da.

II.- AUTOREA ETA OBRA

Karmele Jaio Eiguren Gasteizko idazle eta kazetaria da, 1970. urtean jaioa. Haren guraso lekeitiarrak, aitaren lana zela eta, Gasteizera joan ziren bizitzera, eta bertan hazi eta hezi da Jaio. 2015eko uztailaren 17an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, gaur egun, Emakundeko komunikazio arduraduna da.

Jaioren literatur ekoizpenari dagokionez, lehen lana 2004. urtean argitaratu zuen, *Hamabost zauri* (Elkar, 2004) izeneko ipuin-liburua. Harrezkero, lan ugari argitaratu ditu eta literatur genero desberdinetan murgildu da:

- *Hamabost zauri* (2004) ipuin-liburua: gaztelerara eta ingelesera itzuli da. Giza-harremanetan eta, batez ere, bikote harremanetan sortzen diren zailtasunak eta zauriak dira protagonista. Esan gabeko hitzek pisua hartzen dute.
- *Amaren eskuak* (2006) eleberria: proiektu honekin Igartzia Saria irabazi zuen 2004. urtean eta, ondoren, eleberri horrekin Zilarrezko Euskadi Sa-

⁴ Rodriguezek Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi, Miren Agur Meabe, Karmele Jaio eta Uxue Alberdi elkarrizketatu zituen. Urkizak, berriz, Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra eta Arantxa Urretabizkaia.

ria, Zazpi Kale Saria eta Beterriko Liburua Saria irabazi ditu. Gaztelania-ra auto-itzuli zuen, eta ingelesera eta alemanera ere itzuli da. Ingeleseko itzulpenak English Pen Translation Award saria jaso zuen, eta 2018ko Edinburgoko nazioarteko liburu jaialdian aurkeztu zen. 2013. urtean Donostiako Zinemaldian eleberri honen film egokitza penaren estreinatu zen, Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean. Ama-alaben arteko harremanen ingurukoa da eleberria, alabaren ikuspegitik kontatua. Zauriak kasu honetan ere presente daude, gizonezko maitaleek protagonistengan utzitakoak zehazki. Senitartekoen espero bezain zaindari fina ez izateagatik sentituko zama eta errua ere presente daude.

- *Zu bezain ahul* (2007) ipuin-liburua: ingelesera itzuli da. Giza-harremanak dira protagonista, batez ere bikote harremanak eta maitasunak utzitako zauriak ere presente daude, baita zulo eta hutsuneen inguruko hausnarketak ere.
- *Musika airean* (2010) eleberria: gaztelerara, ingelesera eta errusierara itzuli da. Emakume heldu baten istorioa kontatzen du eta kasu honetan ere giza-harremanak eta horien inguruko sentimenduak oso presente daude.
- *Ez naiz ni* (Elkar, 2012) ipuin-liburua: ingelesera itzuli da. Ipuin-liburu honetako 7. ipuina, *Ekografiak* izeneko, Ramon Barea zuzendariak antzerkirako moldatu zuen 2010. urtean. Klase ertaineko familia gazteak dira protagonista, gazte izateari uztera doazenak, eta beren kezka eta ezinegonak dira protagonista. Zauriak, kasu honetan, eguneroko bizitzarekin loturikoak dira.
- *Orain hilak ditugu* (2015) poesia: besteak beste denboraren igarotzeak sortzen duen mina, galdutako pertsonen utzitako hutsunea eta desiraren itzaltzeari buruzko gaiak lantzen ditu bertan.
- *Aitaren etxea* (2019) eleberria: dagoeneko Jaiok berak gaztelerara itzuli du. Galizierara ere itzuli da. 2019ko 111 Akademia Saria, 2020ko Euskadi Literatura Saria eta Nafarroako Liburu Denden Elkartearen euskarazko libururik onenaren saria irabazi ditu. Genero aldagaiak senideen arteko harremanetan duen eraginean sakonki murgiltzen da Jaio eleberri honetan.

Horretaz gain, bere ipuinak *Emekiro: Verhalen van jonge schrijfsters uit Baskenland* eta *Best European Fiction 2017* antologietan argitaratu dira, baita euskal gatazkari buruzko *Haginetako mina* (2008), *Our Wars* (2012) eta *Nuestras guerras* (2014) ipuin-antologietan ere.

Laburbilduz, Karmele Jaiok errealitatetik abiatuta idazteko joera du, obrak gaur egungo gizartean kokatu eta giza-harremanei buruz hausnartzekoa. Bere idazlanak giza-harremanen inguruko kezka eta hausnarketez josita daude, fokua, batez ere, zaurietan jartzen duelarik. Bere ibilbide literarioan zehar, ordea, mota eta adin desberdinetako harremanei erreparatu izan die: bikote harremanak gaztetan, ama-alaben arteko harremanak, gaztaro amaierako krisiak sortutako dinamikak, amatasun eredu berriak, bizitzaren amaierako fasean dauden hausnarketak... askotan harreman eta dinamika horiek utzitako zauriak

estuki loturik agertzen dira hutsune, zulo eta isiluneekin. Rodriguezzi aitortu dionaren arabera, bere eremua «esan gabeko hitzena», «esan gabe geratutako hitzena» da (2019: 71). Bere burua 70eko hamarkadan jaiotako idazleen artean kokatzen du, aitzindariak irekitako inbutua zabaltzeko ahaleginean, eta ezaguna egin izana garai hartan argitaratzen hasi ziren emakumeen kopuru urriari zor zaiola iradoki dio Rodriguezzi (2019). Zerrendatu dugun obra sortak susmo hori deuseztatzeko balioko luke. Ildo horretatik, komeni da adieraztea gizar-teak emakume gisa antzematen dituen artistengan arrunta izan ohi den moduan, Jaiok ere behin baino gehiagotan sentitu duela bere lanei egindako kritiketan adituek presente izan dutela une oro emakumea dela, eta kontziente da horrek eragina izan duela beragan eta bere obran (*ibid.*). Sentipen hori, ordea, orokorra dela esan genezake. Joanna Russen (2018) arabera, emakume gisa irakurriak diren artisten lanak gutxiesteko mekanismoetako bat beren obrei erreparatu baino, emakume izaera horri erreparatzea eta, beraz, beren lanei bigarren mailako arreta eskaini eta, batzuetan, are desprestigiatzeko. Euskal idazleen kasuan, bai Urkizak eta baita Rodriguezek elkarriketatutako idazleek, nagusiki emakume izaera horri erreparatu izana salatu dute. Rodriguez bera emakume gorputzak literatur plazan hartzen duen presentziaz mintzo da *Idazleen gorputzak* saiakeraren harira Gurrutxagak *Berrian* egindako elkarrizketan:

Uste dut geuk ere neutraltasunetik idatz genezakeela uste genuela, baina, behin plazara irtenda, konturatu ginela hori ezinezkoa zela, eta hor zegoela gure gorputza, testuaren atzean, ondoan, azpian, lerro artean, kritiketan, toki guztietan. Onartu beste aukerarik ez dugu eduki (Rodriguez apud Gurrutxaga 2019).

Testuinguru horretan, bereziki azpimarragarria da Rodriguezek (2019) Jaiori egindako elkarrizketan amatasunak bere obran eta idazle figuran izandako eraginari egiten dion aitortza. Jaioren arabera, ama izateak idazteko kontzentrazio galera, denbora eskasia eta zarata ekarri dizkio; izan ere, idazteko gela badu ere, idazlearen esanetan, beti dago eskean ari den jendez gainezka. Horretaz gain, publikoan ama gisa agertzeak erreparoa sortzen dio, ekidin egiten du «merienda usaina» har ez diezaioten, idazle estatus hori kaltetua izan ez dadin (Rodriguez 2019: 75-76). Gai horri estuki lotuta, hurrengo atalean, besteak beste, amatasunak eta emakumetasunak tradizionalki izan duen zaintzaren zama eta horrek pertsonaien bilakaeran zer nolako eragina duen ikusiko dugu.

III.- NIRE AITAREN ETXEA DESERAIIKIKO DUT: GENERO ALDA-GAIAREN ANALISIA FAMILIAKO HARREMANEN BAITAN

Atal honetan *Aitaren etxea* eleberriaren analisisan zentratuko gara. Esan bezala, eleberriak harrera beroa izan du irakurleen eta kritikaren partetik, horren adibide izanik, besteak beste, 111 Akademia eta Euskadi Literatura sariak. Horretaz gain, argitaletxeak liburuaren alde egindako apustua eta marketing kanpaina ere nabarmentzeko modukoak dira, esaterako, 2019-2020eko Gabonetan Euskal Telebistan liburuaren iragarkia jarri baitzuten. Prentsa literatur

kritikari dagokionez, zortzi kritika jaso ditu eta kritika akademikoari dagokionez, berriz, bat euskaraz eta bi gazteleraz⁵.

Eleberria hamalau atal nagusitan dago banatuta eta atal bakoitzak pertsonaia baten izena darama: sei atal Ismaeli eskainiak, bost Jasoneri eta hiru Liberi. Ismael eta Jasone senar-emazteak dira; Libe, berriz, Ismaelen arreba eta Jasoneren lagun mina. Ismaelen eta Liberen atalak bigarren pertsonan narratzen zaizkigu. Jasoneren atalak, berriz, lehenengo pertsonan. Lasarte eta Perales-Fernández-de-Gamboa (2021) autoreen kritikan iradokitzen denaren arabera, pertsona gramatikalen erabilera ez da ausazkoa. Zehazki, bigarren pertsonaren erabilera distantzia hartzea ahalbidetzen duen mekanismoa dela iradokitzen da bertan, pertsonaiaren kontzientziari hitza eman eta gaiaren inguruan egiten duen kontzientziazio ibilbidea islatzeko balio duelakoan. Lehenengo pertsonaren erabilerak, aldiz, pertsonaia kontzientziazio prozesuan aurrerago dagoela adieraziko luke, bere kontzientziak baino, pertsonaiak berak hartzen baitu hitza (Lasarte + Perales-Fernández-de-Gamboa 2021).

Eleberriaren argumentuari dagokionez, Ismael idazlea da eta erabat blokeatua dago bere hurrengo eleberria idazten. Horren murgilduta dago zeregin horretan, ez duela horretan besterik pentsatzen. Ismael eta Liberen amak istripu bat izan ostean, ordea, etxean bakarrik dagoen aita zaintzera behartuta egongo da. Egoera hori ezin kaltegarriagoa da bere sorkuntza prozesuarentzat. Alabaina, egoera onartu egin beharko du, arreba Berlinetik etorri bitartean bederen, eta bere beldurrei zein erruduntasun sentimenduari aurrez aurre begiratu beharko die. Bien bitartean, Jasone emaztea urtetan zehar zaintza lanez arduratu izan da etxean: gurasoak, alabak, senarra... Noiz eta nola jakin gabe, gaztetan ekindako bidetik aldendu eta idazteari utzi zion, etxean idazle kategoria duen bakarria senarra delarik. Jasone, aldiz, senarraren zuzentzailatzat jotzen da. Hala ere, irakurle talde feminista batean parte hartzen hasten denetik, apurka berreskuratzen ditu idazteko autoestimua eta grina, eta eleberri bat idazteari ekiten dio.

Idazketa prozesu horren harira, bortxaketaren gaia oso presente dago. «La Manada» kasuak barrenak nahasi dizkie bi protagonistei, haien alaba gazteena eraso gertatu zen gauean Iruñean baitzegoen San Ferminetan. Bera izan zitekeen bortxatua. Kontatzen zaigunaren arabera, gertakizun hori inflexio puntu bat izan da bi protagonistentzat. Jasone bere bortxaketa irudikatu eta deskribatzera bultzatuko du. Bien bitartean, Ismaeli gogoa galderaz beteko zaio, amesgaiztoz, eta bere burua bortxatu/bortxatzaile dikotomian non kokatzen den hausnartzen hasiko da. Hasieran Madrilgo editoreekin euskal gatazkaren auziari buruz idaztekoan gelditu bazen ere, bortxatzaileak erasotutako emakumearen larrian jartzen eta erasotzaileen profilararen inguruan arakatsen ahaleginduko da. Bidenabar, euskal gatazka armatuaren gaiak eleberri honetan duen trataerak ere aparteko analisi bat eskatuko luke.

⁵ Euskaraz argitaratu den bakarria Lasarte eta Perales-Fernández-de-Gamboa (2021) autoreena da. Gazteleraz, berriz, lan horren erdarazko bertsioa argitaratu da, baita Colbert-Goicoak eta Martin-Etxebestek (2021) egindako kritika ere. Ikus bibliografia.

Eleberriaren argumentura bueltatuz, senar-emazteen arteko amildegia denbora igaro ahala zabalduz doa, eta elkarri esan gabe utzitakoen testigu da irakurlea. Halaber, gai ugari buruz hausnartzeko parada eskaintzen zaigu eleberri honetan: sistema patriarkalak ezarritako rolak eta horietaz libratzeko zailtasunak, erruduntasun sentimendua, barne-gatazkak eta kontraesanak, botere-harremanak, literatur sorkuntza eta egiletza... Funtsean, askotariko biolentzien presentzia antzeman daiteke esku artean dugun testuan.

Laburbilduz, artikulua honetan *Aitaren etxea* eleberria osatzen duten pertsonaien arteko harremanen logika eta dinamikei erreparatuko diegu, kontuan izanik generoak harreman horietan duen eragina azpimarratzen dela eleberri osoan zehar. Funtsean, gizartean, oro har, eta familia baten altzoan, konkretuki, sozialki genero jakin bateko gisa irakurria izateak dakartzan inplikazioez hausnartuko dugu.

3.1.- Genero identitatearen eraikuntza prozesua

Artikuluaren azpi-atal honetan, batetik, familiako genero mandamentu tradizionaletatik ikusi eta ikasitako dinamikak eta jarrerak identifikatuko ditugu eta, bestetik, pertsonaiek mandatu horiek kuestionatu gabe erreproduzitzen dituzten uneak nabarmenduko ditugu. Honela, genero identitatearen eraikuntzaz arituko gara, ondorengo azpi-atalean pertsonaiek estereotipo tradizional horiekin hausteko planteatzen dituzten hausnarketak identifikatu eta deseraikuntza garaian sakontzeko.

Analisian aurrera egin aurretik, ordea, komeni da genero hitza aipatzen dugunean hitz hori nola ulertzen dugun azaltzea. Genero hitza, besteak beste, sexuen arteko harreman sozialei erreferentzia egiteko erabili ohi da. Hitz hori erabiltzeak sexuen arteko bereizketa biologizista ukatzea dakar, hots, emakumeek haurrak izateko duten ahalmena izateagatik eta gizonek indar muskular gehiago izateagatik emakumeak menpekotasun egoeran egotea naturala dela onartezintzat jotzea. Argudio biologizista horri aurre egiteko genero hitzak «eraikuntza kulturalaren» konnotazioa hartu ohi du, aipatutako sexu-bereizkerian oinarritzen diren rol egozien sorkuntza soziala agerian utziz (Scott 1986). Generoa, beraz, sexudun gorputz bati ezarritako kategoria sozial gisa ulertzen dugu testu honetan.

Deskribatutako segregazio hori txiki-txikitik barneratu duen gizartean bizi gara, eta horren ditugu barneratua patriarkatuaren mekanismoak, bere mandatuak normalizat jotzen ditugula. Askotan ez gara jabetu ere egiten iruzkin, keinu edo jarrera batzuen konnotazio sexistaz. Liburu honetan patriarkatuaren mekanismo horietan arakatzera jotzen du Jaiok. Pertsonaien barne-munduan eta pentsamenduetan arakatzuz, familiaren muinera heltzen da eta pertsonaien gogoeten, deserosotasunen, erruen, zamen eta beren buruei egindako galderen bitartez genero-estereotipoek baldintzatutako identitate eta egitura emozionalen egiten dugu topo. Familiaren altzoan jasotako genero mandamentuak presente daude beren helduaroko bizitzetan, beren egunerokotasuna baldintzatuz, eta haietatik libratzeko ahaleginean ikus ditzakegu pertsonaiak, bakoitza bere erritmoan eta bere ahalmenaren arabera.

Testuinguru horretan, azpimarragarria da eleberriaren hasiera aldera aurki dezakegun pasarte. Bertan, Ismael eta Liberen gurasoen eguneroko dinamika deskribatzen zaigu Ismael pertsonaiaren bitartez. Ama lanbasa eskuan, aita egongelan telebista ikusten; haiei laguntzera joaten den Nancy ere aipatzen da:

Han egongo da zure ama orain ere, ordu honetan sukaldeko behegainari lanbasa pasatzen, berrogeita hamar urtetan egunero egin duen bezala. Ezkerretik eskubira, eskubitik ezkerrera, sigi-saga, sukaldean gertatutako hilketa baten odol arrastoak ezabatu nahiko balitu bezala. Zure, ama beti frogak ezabatzen, ahotsak baretzen, suak itzaltzen. Balkoiko atea irekita utziko zuen zorua azkarrago sikatzeko. Xerra frijitua eta lixiba, bazkalosteko usain nahasketa hori. [...] Aita egongelan irudikatzen duzu telebistaren aurrean, erdi lo. Burua galtzen hasi zenetik Nancyk laguntzen die, baina ziur zure amak ez diola lanbasa pasatzen uzten. Inork ez du pasatzen lanbasa berak bezala. Zorua garbitzea bere territoria da (15-16).

Ikus daitekeen moduan, etxeko andre tradizionalaren irudia deskribatzen zaigu, etxeko garbiketaz ez ezik otorduez eta etxeko bakeaz eta ongizateaz arduratzen dena. Territorio hitzaren erabilera ere azpimarratuko genuke, ez baitirudi alferrik erabilia. Oro har, hitz hori eremu geografiko mugatupei erreferentzia egiteko erabiltzen da, eta oso presente egon ohi da gerra eta gatazka testuinguruetan. Azken finean, muga geografikoak ezartzeak territorio jakin baten gaineko kontrola izatea dakar, eta horrek botere-lehiak sor ditzake. Biolentzia darabilten botere lehietan, tradizionalki, gizonak aritu izan dira lehen lerroan. Gizarte patriarkaletan emakumeen eta, batez ere, amen lekua etxea izan denez, bertatik aritu izan dira kultur tradizioen transmisore gisa, baita baloreen eta moralaren gordailu gisa jardun ere eta, zentzu horretan, amaren etxeko gotorlekua oso garrantzitsua izan da nazionalismo kulturalarentzat (Yuval-Davis 1997). Ez litzateke kasualitatea, beraz, Ismaelek amaren territoria etxearekin estuki lotuta deskribatzea. Halaber, eleberrian zehar Jaiok erakusten duen ikuspegi kritikoa oinarritzat hartuta, salaketa gisa ere interpreta genezake pasarte horretan territorio gisa etxeko zorua garbiketa seinalatzea. Testuinguru horretan harira dator Jule Goikoetxeak Marina Sagastizabalen *Hiruki gatazkatsua* (2020) saiakeraren hitzaurrean egiten dituen gogoetak hona ekartzea, eleberriarekin lotura dutelakoan⁶. Goikoetxearen (2020) arabera, emakumeen sozializazioak eta haien egunerokoa osatzen duten jardunek, lana eta familia barne, parte hartze kultural eta politikoa murrizten dute, eta horrek eragin zuzena du emakumeen botere ekonomiko eskasean, bai diru sarreteran, eta baita haiek duten kapital sozial, kultural, politiko eta sinboliko debaluatuan ere (*ibid.*). Errealitate horren isla presente dago eskuartean dugun eleberrian. Batetik, Ismael eta Liberen gurasoen etxean eta, bestetik, Ismael eta Jasonerenean. Ismael eta Liberen ama, aipatu dugun moduan, etxeko andrea izan da beti eta ez du inoiz diru-sarrerarik izan. Senarraren soldatatik hilero apartatu eta josteko kutxa batean gordetzen zituen ehun pezetek osatzen zuten bere aurrezkien patrimonioa. Senarrak, or-

⁶ Marina Sagastizabalek saiakera horretan etxeko eta zaintza lanak, ordaindutako lana eta parte hartze soziopolitikoaren arteko gurutzaketen artikulazioak aztertu ditu.

dea, behinola igandeetan erabiltzeko berokia erosteko aurreztuta zeukan dirua hartu eta eskopeta berri bat erosteko erabili zuen, emaztearen patrimonio ekonomiko urria baimenik gabe xahutuz:

Ez duzu gogoratzen? Agian gazteegia zinen. Ia bi urte zeramatzan botoien lata hartan (gogoratzen lata?) hilero ehun pezeta sartzen. Bisoiaren imitazioko beroki horietako bat erosi nahi zuen. Aitari soldatatik hilero zerbait hartzeko baimena eskatu zion. Aukeratua zuen jada berokia, hitz eginda zegoen dendakoekin... Eta egun batean, aita haren lata ireki, dirua hartu, eta eskopeta berri bat erosteko erabili zuen (148).

Ismael eta Liberen aita fabrika egiten zuen lan, testuinguru sozial konkretu batean kokatuz beren familia. Sagastizabalen (2020) arabera, industrializazioaren garapenak, besteak beste, etxearen eta fabrikaren arteko banaketa zurruna ekarri zuen eta, ondorioz, lanak banatu egin ziren, etxean ongizaterako lanak eta lan produktiboak gauzatuz (umeen, helduen eta nagusien zaintza, etxeko lanak) eta fabrika, aldiz, lan produktiboak. Testuinguru horretan Carole Pateman (1995) teoriarari eta politikari feministak kontratu sexual moderno gisa izendaturikoa hedatzen hasi zen; bestela esanda, gizonek eta andreak osatutako familia eredia. Batek etxera soldata dakarren bitartean, bestea zaintza lanez zein lan afektibo-sexualez arduratuko da, maitasun erromantikoaren oinarria den laranja erdiaren mitoa martxan jarri eta patriarkatuaren eta kapitalismoaren arteko uztartzean oinarritzen den arau heterosexualaren sistema ekonomikoa finkatuz (Sagastizabal 2020). Egunerokotasuneko errealitatea, beraz, eleberrian deskribatzen zaigun garaian, estuki lotua zegoen generoarekin, eta espazioak oso argi bereizita zeuden aldagai horren arabera. Honela dio Begoña Aretxaga antropologoak espazioaren banaketa horren inguruan:

En la realidad cotidiana, el espacio de la mujer por excelencia es la casa que separa estructuralmente a unas mujeres de las otras. La plaza, la taberna, o antiguamente las anteiglesias, son espacios comunitarios en los que participan exclusiva o prioritariamente los hombres. Mientras los espacios femeninos dividen, los masculinos favorecen la asociación y los proyectos comunes (Aretxaga 1988: 37).

Ismaelen gurasoen kasuan, lehenago esan dugun moduan, ama etxeaz eta etxeko ongizateaz arduratzen zen eta senarra, berriz, fabrikatik dirua etxera ekartzeaz. Senarraren lana zela eta, Eibarretik Gasteizera lekualdatu ziren eta horrek emazteari, bereziki, inguru sozialik gabe gelditzea ekarri zion. Areago, bizileku berrian sozializatzen hasteko ahalegina ukatu zion senarrak, etxeko genero hierarkien eta botere harremanen presentzia argi eta garbi zedarrituz:

Liberen begietan errua ikusi duzu. Amari buruz hitz egiten jarraitu du: azaldu dizu ama Gasteizen bakarrik sentitu dela beti, eta ez zeukala etxeko bizitzatik harago ezer. Eibarren behintzat bere ahizpa zeukala, lagunak... Gogoratu dizu amak jostura-talde batera apuntatu nahi izan zuela, etxetik irten eta beste emakume batzuekin hitz egin ahal izateko, baina aita ezetz esan ziola (148).

Ismael eta Jasoneren kasuan, aldiz, Ismael idazlea da ofizioz. Jasone ere, berez, bada idazlea, baina ezkutuan idazten du, ez da bere ogibide ofiziala. Aldiz, bera da diru-sarrera egonkorra etxera dakarrena, liburuzaina baita. Zentzu horretan gorago deskribatutako dinamikak iraultzen direla lirudike, baina oso kontuan hartzekoa da harreman horretan norengan erortzen den etxeko ongi-zatea bermatzearen zama:

Bi urte beteko dira laster azken nobela argitaratu zenuenetik. Alde zaharrean bizi zineten orduan, eta alabak zuekin zeuden. Idatzi bitartean haien ahotsak entzuten zenituen alboko gelan, korridorean... Joan zirenetik, ez dago neska gazteen ahotsik etxean, ez dago kontzentrazioa galaraziko dizun musikarik (ez Amy Winehouse, ez Coldplay, ez Gatiburik...), ez Jasonek neskei egindako agirakarik, edo nesken barre algararik... Orain Jasone eta biak bakarrik bizi zarete, baina Jasonek jada ez du hainbeste denbora egiten etxean alabei etxeko lanekin laguntzen, hurrengo eguneko bazkaria prestatzen, irakurtzen, ospitalean ama edo aitarekin gaua egin ondoren atsedena hartzen, edo zure nobelari zuzenketak egiten. Jada ez du etxeko liburutegia lehen bezala beti ordenatua, klasikoak orden alfabetikoari jarraituz: Camus, Chejov, Duras, Faulkner, Flaubert... Liburu berriak argitaletxearen arabera jarrita... (32).

Are gehiago, Ismaeli bere amak tuperrak ekartzen dizkio bazkaritarako (25), beraz, horretaz ere ez da arduratzen. Irakurri berri dugun pasartean nabarmena da genero-rol tradizionalak erreproduzitu eta etxeko lanen eta arduraren banaketa desorekatua dagoela Ismael eta Jasoneren arteko harremanean. Era berean, Ismaelek darabilen bigarren pertsona gramatikalak aditzera ematen digu bere parte hartzea urria dela familiaren etxeko egunerokotasunean, eguna bere idazteko zereginean isolatuta igarotzen duela iradokitzen baitu. Isolamendu horrek, ordea, deseroso sentiarazten du, baztertua sentitzen dela adierazten baitu aurrerago:

Inoiz izan duzun susmoa indartu egin da azkenaldian. Familiako gizonek zenbait informazio galtzen duzuela bidean. Lurralde ezkutu bat dago zuen inguruan bueltaka, sekula ezagutu edo dastatu ez duzuen. [...] Susmatzen hasia zaude zuk ere aitak beste informazio galtzen duzula zure familian. Zuri ere emazteak eta alabek zenbait informazio ezkututzen dizutela, ez dizutela dena esaten (71-72).

Hala eta guztiz ere, gorago ekarri dugun pasartean aditzera eman dugun zaintzaren eta etxeko arduraren gaira bueltatuz, ezinbestekoa da mahaigaineartea Jasone, deskribatutako dinamika desorekatu horren ondorioz, depresioa izatera iritsi dela. Genero mandamentuek ezarritako zamak, beraz, osasun mentala kaltetzeraino heltzen dira pertsonaia honen kasuan:

Libek hasieratik ohartarazi ninduen. Lehen haurdunaldiaren ondotik, telefonoz esaten zidan, ondo gogoratzen dut, ezin nuela hainbeste errenuntzia egin. Nire ipuin berriak irakurtzeko gogoia zuen. Saiatu nintzen azaltzen, zinez, ez zela erraza idazten jarraitzea. Hasieran umeak ziren. Umeak beti gainean. Eta, bitartean, Ismael bere idazketan murgilduta. Ordurako eskatua zuen eszedentzia

lanean, bere lehen nobelak izandako arrakastaren ondoren. Isilik, aita idazten ari da eta, goazen parkera lasai idatz dezan. Bere Obra Handia idatz dezan. Gero, urtetara, gurasoak. Hasieran ama, gero aita, biak gaixorik, Osakidetzak antolatutako lehiaketa batean baleude bezala, eta biak bere alaba bakarraren laguntzaren beharrean. Asun. Asunción. Anestesiatik esnatu aurreko azken urteetan, nire dekoratuan egon dira ospitalea, kontsultetarako bolanteak, gurpildun aulkiak, dutxatzeko banketa bereziak, XL neurriko pixoihalak, ordezeko hortzentzako pegamentua, itxi usaina, zahar usaina. Dekadentzia. Eta gurasoen gainbehera alaben piztuerarekin batera bizi izan nuen: gauetan etxera bueltatzeko ordua, Maialenen patrikan aurkitutako haxixa... Non aurkitu behar nuen indarra, non denbora eta kontzentrazioa idazteko? [...]. Urte haien ondoren, gainera etorri zitzaidan depresioa. Ismaelek ez zuen hori ere ikusi. [...] Ez zituen nire gorabeherak sumatu ere egin. Denbora horretan hibernaziotik minera pasatu naiz, minetik pastillek eragiten zidaten tontotasunera, eta azkenik, pastillen efektu plazebotik nire minei begietara begiratzera, idazketaren bitartez (86-87).

Maria Zapata (2016) psikologo eta antropologo feministaren arabera, depresio bilakatuta amaitzen duen ondorez, hein handi batean, zerikusia du norberak egitura sozial eta kulturean duen desabantaila-mailatik eratorritako egoerekin, genero aldagaia barne, eta horren adibidea litzateke Jasoneren kasua. Zapatak (*ibid.*) bere ikerketan egiaztatu ahal izan duenaren arabera, amatasunarekin eta umeen garapen egokiarekin batera beren gain hartutako zama sozial eta pertsonalak, esaterako, mendekotasuna duten pertsonak zaintzearen zama, sexu-abusuak, erantzule ez diren egoerengatik beldur zein erru sentimendua, familiek edota bikotekideek ezarritako bizitzaren eta gorputzen gaineko kontrola eta abar, sufritzen eta ondorezik sentitzen hasteko arazoak izan daitezke, guztiek ere generoaren araberrako banaketa desorekatuarekin zerikusia dutelarik. Horrekin lotuta, María del Mar García-Calvente mediku ikertzaileak eta bestek (2004) genero aldagaia kontuan hartuta etxeko lanen inguruan egindako azterketek adierazten dute emakumeak izan ohi direla senideen zaintza informalaz arduratzen direnak, eta horiek ezin dutenean, beren ordezkari emakume batzuk bilatu ohi dituztela. Ikerketa horren arabera, gizonak zaintza lanetan laguntzeko inplikatzaren direnean pisu gutxieneko ardurak, ezohikoenak edo ardura gutxiago eskatzen dutenak hartu ohi dituzte beren gain. Halaber, García-Calvente eta bestek (2004) diotenez, zaindari nagusiaren rola bereganatzeko kostu handia du emakumeen bizimoduari dagokionez, eragin zuzena baitu haien osasun fisiko eta mentalean.

Ismael eta Liberen amak aldaka hautsi eta ospitalean ingresatzen dutenean neba-arrebek telefonoz hitz egiten dute zaintzaren ardurari buruz, eta elkarriketa horretan agerian gelditzen dira genero estereotipo eta zamak:

Amaren egoera ikusita, Libek segituan bueltatuko zela egoera esango zizula espero zenuen, baina jokoz kanpo utzi zaitu arrebak, orain ezin dela bueltatu esan dizunean, eta bitartean aitarekin egotea egokituko zaizula agindu dizunean.

[Neba-arreben arteko eztabaida]

-Denbora pixka bat, besterik ez dizut eskatzen. [...] Baina bitartean, mesedez, egin zaitez aitaren kargu.

Ez diozu ezer erantzun. Ez diozu barruan hazten ari zaizun amorrua erakutsi nahi. Sakonean, barneratuta baituzu hori ez dela zure lana. Liberi mesede bat egiten ari zarela sentitzen duzu zure epidermisaren barrutik. Libe zen amarekin erosketak egiten zituena, zu ehizan zihoana aitarekin. Libe zen amarekin bazkaria prestatzen zuena, zu lagunekin futboleko zebilena. Libe zen etxean geratzen zena, zu mendira zihoana aitarekin Aitorren bila. Ez da zure lana orain aita zaintzea (72-74).

Libe kontziente da gizarteak ezarritako zaintzaile rolaz eta horrek suposatzen dizkion barne-kontraesanez. Hala eta guztiz ere, mandatu horrekin konplitzen amaitzen du, Berlinetik ahal bezain pronto eta nebari agindutakoa baino lehen bueltatzen amaitzen baitu:

Aspaldi gainetik kenduta zeneukala uste zenuen lege zahar bat, gurasoak alabek zaindu behar dituztela esaten duen legea, kobazuloaren oihartzun bakoitzak gogorarazten dizuna. Gerra zahar hori berriz ere. Gerra nazkagarri hori (94).

Azkenean, ordea, Ismaelek aitaren zaintzaz arduratzea onartzen du partzialki, Libe etorri bitartean, bederen, eta Nancyk egiten dio erreleboa afalorduan. Ildo horretatik, interesgarria da nabarmentzea hasiera-hasieratik aipatzen dela Nancy izeneko zaintzailearen presentzia, izenak emakume kanpotarra dela iradokitzen digularik. Sagastizabalek (2020) baieztatzen duenez, gehienetan emakume etorkinak izango dira familiako kideek kontratatuta haien ordeztuko eta zaintza lanak burutuko dituztenak, diskriminazioan oinarritutako Atzerri-tarren Legea dela medio eta etxeko eremuak ahalbidetzen duen lan harremanen arautzerik ezak lagunduta.

Hala ere, ikerketen arabera, gehienbat genero aldagaiak baldintzatzen du etxeko lanari eta zaintzari eskainitako denbora, klase sozialaren, jatorriaren edota sexualitatearen gainetik (Callejo + Prieto 2015; Martell + Roncolato 2016 *apud* Sagastizabal 2020). Testuinguru horretan, ohikoa da emakumeak bizitzarekin harremana duten eremuetan inplikatzeko, hala nola oinarriko beharritan, eskolan eta zaintza lanetan. Horrek, sarritan, emakumeak «apolitiko» gisa sozializatuak izatea ekarri du (Neuhouser 1995 *apud* Sagastizabal 2020), politika gizonak boterea eskuratzeko gauzatzen duten borroka gisa ulertu izan baita, eta familiaren eta komunitatearen ongizatea bilatzeko asmoz egindako lana ez baita politikotzat jo izan. Desberdintasun horrek, maiz, emakumeak bigarren mailako protagonistak izatea ekarri izan du, hots, gizon baten emazte, ama, alaba edo neska-laguna gisa identifikatua izatea (Sagastizabal 2020).

Aztergai dugun eleberriri dagokionez, azken baieztapen horren presentzia identifika dezakegu. Esate baterako, Jasonek ironia finez salatzen du etxean senarra dela izen-abizendun idazlea: «Azken finean, biok geneukan barneratuta bera dela etxe honetako idazlea, Ismael Alberdi, eta ni bere idazkiak zuzentzen dizkion emazte fina» (43). Are gehiago, eleberriko osoan zehar ez da Jasoneren abizena inondik ageri. Ellen Moersen (1977: xiv) arabera, emakume idazleak

umetan neskato gisa hezten dituzte eta familian zein beste esparru batzuetan rol jakin batzuk esleitzen zaizkie, beren ibilbideak baldintzatuz. Funtsean, ez dira izen-abizendun artistak izateko heziak izaten (*ibid.*).

Emakumeak bigarren mailako protagonistatzat jotzearen auziari dagokionez, Jasonerena ez da eleberrian aurki dezakegun adibide bakarra. Badago tes-tuan behin aipatzen den emakume bat, Ismaelentzat sekula izenik izan ez duena: «Zure gurasoak aitaren lankide batekin eta haren emaztearekin geratzen ziren. Fernando eta bere emaztearekin. Sekula ez zenuen emaztearen izena entzun» (182). Ismael urteak igaro ondoren jabetzen da emakume horri izena falta izan zaiola, ez duela inork bere izenik aipatu sekula eta hori, hain zuzen, patriarka-tuak emakumeak gutxiesteko duen mekanismoetako bat da (Russ 2018: 101).

Hala eta guztiz ere, azpi-atal hau ixteko, komeni zaigu patriarkatuaren man-damentuek gizonen garapen emozionalean duten eraginaz jardutea, eleberrian gai horren presentzia nabarmena baita. Ismael etengabe ikusiko dugu beragan-dik espero denaren eta horrek suposatzen dizkion zama eta deserosotasunen inguruan hausnartzen. Hurrengo pasartea horren adibide dugu:

Zure aitak gutxitan begiratzen dizu begietara, eta egiten duenean galdera bera ikusten diozu: Begiratu duzu hortik? Ziur ondo begiratu duzula? Eta erru dun sentitzen zara. Errudun gizon baten moduan lanik ez egiteagatik, koldar bat izateagatik, zure arrebarekin Itoizen abestiak kantatzea gustatzeagatik, Libek beti izan dituen «potroak» ez izateagatik. Noizbehinka zuen begiradak guru-tzatzen direnean, saihesterik lortzen ez duzunean, erretako paper pusketak be-zala lurrerantz poliki doazen partikulak ikusten dituzu oraindik. Zure gizonta-suna da, birrinduta (179).

Testuinguru horretan interesgarria da antropologia sozialaren esparruan adi-tua den Rosario Oteguiren gizonen sozializazio prozesuari buruzko gogoetak hona ekartzea. Honela dio:

Por un lado, los procesos de socialización de los varones implican su necesaria absorción de unas categorías ligadas a la fuerza, entendida como la capacidad de aguantar y no manifestar los sentimientos de dolor ante una agresión externa o interna. Los juegos violentos y la necesaria acomodación de los niños a los golpes sin quejarse tendrían como objetivo la modelación de unas ideolo-gías que, después de valorar la fuerza y la resistencia, atribuyen a uno de los géneros su exclusividad (Otegui 2000: 231).

Autorearen aburuz, *maritxu*, *kexati* eta *mainontzi* moduko adjektiboak «gi-zonak berez indartsuagoak» direla aldarrikatzen duen premisa biologizista jus-tifikatzeko baliatzen dira⁷. Maskulinitate normatiboa naturalizatzeko prozesu patriarkalek premisa hori onartzea eta horretara egokitzea eskatzen dute. On-dorioz, indarkerian eta erresistentzian sozializatzeko moduek indartu baino ez

⁷ Jatorrizko artikuluan *nenaza*, *quejica* eta *llorica* adjektiboak erabiltzen ditu autoreak.

lukete egingo aldez aurretik ezarritako hipotesi hori. Jarraian irakurriko dugun eleberriaren pasartearen argi eta garbi ikus daiteke ideologia horren isla:

Eta han ikusi duzu zeure burua ere. Etxeko mutila. Aitak mutilago izatea nahi-ko zuena. Amari begira dago, amak afaria noiz prestatuko duen zain. Bere buruari ama zergatik ari den negarrez galdetzen ez dion mutila. Ezer galdetu behar ez duela badakien mutila. Laster emakumeen kontuak esaten ikasiko duen mutila (159).

Bertan, Ismael iraganean ikasitako genero mandamentuak erreproduzitzen ari deneko eszena bat deskribatzen zaigu. Bigarren pertsonan narratua egonik, lehenago aipatu dugun moduan, kontzientzia hartze baten zantzua hartzen du pasarteak. Bere burua kanpotik ikusten du, jabetzen da egindakoaz edo, zehazki, amarekiko enpatia eta babesera erakutsi ez izanaz, hain zuzen ere horrela hezia izan baita. Hala ere, Ismael pertsonaiarengan patriarkatuaren mandamentuen inguruko kontzientzia hartze bat ikus dezakegu, eleberrian zehar garatuz doana eta bere genero-identitatearen deseraikuntza prozesua abian jartzea ahalbidetuko diona. Era berean, kafe makinaren inguruko hausnarketa hau kontzientzia hartze horren analogia gisa interpreta genezake:

Sukaldeko kafe makinari begira gosaldut duzu. Askotan gosaltzen duzu makina potrozorri horri begira. Hamaika aldiz esan dizu Jasonek kafe makina elektrikoa ez datorrela bat sukalde berriarekin. Altzari minimalistak, metal koloreko elementuak, sukaldeak espazio-ontzia ematen du, zeri kusirik ez garai bateko baldosa zuriko ezkaratzeekin. Suaren ordezt, indukzio plaka; mahai zabal eta egurrezko aulkien lekuan, barra altua eta aluminiozko tabureteak; bonbilla fluoreszente keinukarien tokian, sabaian integratutako led argiak; eta antzinako emakume amantaldun nonahikoaren ordezt, Thermomixa (19).

3.2.- Genero identitatearen deseraikuntza prozesua

Eleberri honek zerbait iradokitzen badu, hori *Aitaren etxea* deseraikitze-ko beharra eta erronka litzateke. Aipatu dugun moduan, familia arteko harremanetan genero aldagaiak eta sistema patriarkalak ezarritako bereizkeriak duten eraginari buruzko hausnarketa etengabea da eleberrian. Zamak, deserosotasunak, beldurra, haserrea eta aurpegiatzeak oso presente daude. Pertsonaia bakoitzak, ordezt, gai horrekiko abiapuntu eta garapen desberdina erakusten du, eta artikulua- ren atal honetan Ismaelen, Jasoneren eta Liberen kontzientzia hartzei buruz jardungo dugu.

Hasteko, komeni da aipatzea Jasonek eta Libek kontzientziatze maila altuagoa adierazten dutela Ismaelek baino. Lehenengo bi pertsonaia harreman horien dinamika eraldatzera bidean daudela esan genezake. Honako pasarte honetan kontzientziatze horren berri ematen zaigu:

Askotan hitz egin dugu Libek eta biok emakumeek euren burua hormaren kontra zakarki jotzen sentitzen duten bizitzaren une horretaz; denei gertatzen zaie

uneren batean, lehenago edo geroago. Ordura arte gizonen joko zelai berean daudela sentitzen dute, baina bat-batean, dena ameskeria zela egiaztatzen dute. Batzuk ez dira ohartzen lanean hasten diren arte; beste batzuek zaplaztekoa ama direnean jasotzen dute; beste batzuek etxera autoan lagundu dien mutil bati muxu eman ondoren, hura bortizki eskua praken azpitik sartzen hasten zaienean, eta beraiek nahikoa dela esan arren mutilak gelditzeko asmorik ez duela ikusten dutenean eta, umiliatuta, egiten uzten diotenean. Beren buruei ere aitortu gabe bortxaz tratatuak izaten ari direla. Une hori. Zaplazteko hori (169).

Ismael, aldiz, kuestionatze garaian dagoela esan genezake, sistema patriarkalak berari nola eragiten dion arakutzen eta bere pribilegioez bristi-brasta jabetzen. Jasone, ordea, kontziente da horrek beren arteko harremanean duen eraginaz, eta senarra egoeraz jabetzea desio luke, baina, prozesu luzeagoa izango du aurretik:

Askotan aurpegiratu diot Ismaeli ez dituela gauza asko ikusten, itsu dagoela, eta gauza batzuk ikusteko ahalegina egin behar dela. Normaltasunak ikusezin bihurtzen dituela errealitatea sustengatzen duten zimenduak. Ni ere zenbat lege ikusezinen aginduetara egon naizen, ez dut beti garbi ikusi. Ismaelekin izan dudana harremana zein neurritan ez den izan lege zahar baten patroiairean neurritan eraikitakoa, zein neurritan egon naizen egokitzen zitzaidan zere gina betetzen Ismael eta alabekin: haren maitale, denen zaintzaile. Berriz idazten hasteak, anestesiatik irtetearekin batera barrutik irtendako eztanda hark, argiago ikusten lagundu zidan (203).

Hasiera batean, Ismael samindu egiten da Jasoneren zein Liberen zenbait aurpegiratzeren aurrean. Berezik azpimarragarria litzateke Jasonen gizonen jarrerak edo ekintzak kritikatzeko dituen sentitzen duen haserrea, edo Liben aitaren zaintza arduratzeko eskatzen dionekoa. Lehenengo aserari dagokionez, Colbert-Goicoa eta Martin-Etxebesteren (2021) aburuz, Ismaelek intelektualki feminismoa defendatzen duten, baina maila emozionalean eta jarrera aldetik emakumeekin enpatizatzeke gai ez diren gizonen errepresentazio gisa jarduten du. Horren erakusgarri genduke hurrengo pasarte hau:

Baina orduan Jasoneren ahotsa gogoratzen duzu, bortxaketa edo eraso baten albiste entzutean: hau gerra bat da. Irakurketa klub horretan dagoenetik halakoak esaten dizkizu, eta egiten duen bakoitzean ezinegona sentitzen duzu, beldurraz gain, gerra horretan emazteak zu non ikusten zaituen ezin igarrita. Ez daukazu oso argi noren arteko gerra den edo zu ere nahastuta ote zauden. Gerra hitza ematen duen bakoitzean errudun sentiarazten zaitu. Eta ez da justua (27).

Hurrengo pasarte honetan ere aise ikus daiteke aliatua izan nahi lukeen gizon baten barne-gatazka eta, aldi berean, zapalduarekin enpatizatzeke gaitasun eza:

Gauzak ez nahasteko esateko gogoia izan duzu, gertatutakoa oso latza dela, bortxaketa bat, baina bortxaketa bat dela, eta ez gerra bat. Ez dutela munduko gizon guztiek bortxatu, batzuek baizik. Denak ez direla berdinak, eta halako

esaldiek denak errudun sentiaraztea baino ez dutela eragiten, eta kontrako efektua lortzen dutela gizonengan (55-56).

Testuinguru horretan deigarria da Ismaelek emakume bortxatu baten larrian sartzeko egiten duen ahalegina. Idazle izanik, edozeinen larrian sartzeko gai izan beharko lukeela auresuposatzen du Ismaelek; ez du lortzen, ordea, halakorik egitea bortxatutako emakumearekin. Izan ere, noren larrian sartzen ari garen jakiteaz gain, Jasek berak ondo ñabartzen dion moduan, nondik ari garen kontuan izatea ezinbestekoa da halako ariketa bat egiteko garaian: «Galdetu diozu zeure buruari nondik begiratzen diozun zure emakume horri? Nondik begiratzen diguzuen?» (59). Horixe da, preseski, poskolonialismo feministak nabarmentzen duen premisa nagusienetakoa, eta eleberri honetan presentzia hartzen duena. Hala laburbiltzen dute ideia hori Castro eta Dhawanek:

Según Spivak, el proceso de «hablar en el nombre de» siempre conlleva una parte de interpretación, por lo que es crucial hacer transparente en todo momento ese proceso de representación, es decir, evidenciar no sólo quién es la representante, sino también quién está siendo representada y para qué, en qué momento histórico (Castro + Dhawan 2010: 20).

Ismaelek emakume bortxatuaren larrian sartzeko sentitzen duen ezintasuna, gure ustez, estuki lotuta dago gizon gisa sistema patriarkalean duen posizio hegemonikoarekin, eta, hortaz, zapalduaren lekuan jartzeko ezintasunarekin. Izan ere, ariketa hori egiteko, lehenik eta behin, bere egoeraz zein bere pribilegioez kontziente izan beharko litzateke. Posizio horretaz, ordea, zeharka baino ez da kontziente:

Zurea ere bada mina. Bortxatua eta bortxatzailea sentitu zara aldi berean. Nola da posible? Eta, orain bai, inoiz baino zailagoa egin zaizu ikustea lubakiaren zein aldetan zauden. Bietan ote zaude? Ez, ez da posible aldi berean bietan egotea (158).

Jasoneri, ordea, ia modu naturalean irteten zaio bortxaketa baten deskribapena. Gertakizun hori gorputz kolektibo batetik deskribatzen du, min kolektibo batetik, zapalduen genealogia baten bozgorailu, hain zuzen ere, Ismael ez bezala, bera badelako kolektibo horretako partaide:

Nire bortxaketa deskribatu nuen. [...] Ziur naiz emakume guztiek egin ahal dugula, denek irudikatu dugulako inoiz gure bortxaketa, denek bizi izan dugulako amesgaizto hori. Denek sentitu dugulako inoiz kaletik arrisku hori gure barruan. Sorbaldan. Belarri atzeetan. [...] Emakume baten bortxaketa deskribatu ondoren, haren barruan denbora luzez gordetako hainbat min atera ziren. Bere isiltasunak eztanda egin zuen, eta berearekin nireak, gureak. Eta gureak diot emakumearen hitz bakoitzaren atzean beste hainbat emakumeren ahotsen oihartzuna sentitu nuelako. Lehen aldiz sentitu nuen nire gorputzak beste hainbat emakumeren gorputzen memoria gordetzen zuela, haien gorputzak nirean egon direla presente beti, belarrira xuxurlatuz une oro zer egin behar nuen eta zer ez, zertarako nuen baimena eta zertarako ez (39-42).

Gai honi dagokionez, Lasarte eta Perales-Fernández-de-Gamboaren (2021) kritika literarioan belaunaldiz belaunaldiko trauma gisa izendatzen dute gorputz kolektibo batetik deskribatutako bortxaketa hori. Era berean, eleberrian bortxaketaren kultura salatzen da, abusua erotizatu eta zenbaitentzat desiragarri bihurtu izanak ekarri dituen kalte itzulezinak arbuiatuz, eta bortxaketak iruditeria patriarkalak erakusten duenarekiko oso bestelakoak direla kritikatzuz:

Nahikoa da ate bat igarotzea, karroza zeta kalabaza bihurtzeko. Kristalezko zapataputze. Ras. Furgoneta baten ate irristatzailea. Soinua deskribatzearekin bakarrik izuak nire gorputz guztia hartzen du. Nahikoa da soinu bat bihotza taupada bizian hasteko. Kuleroen gainean txiza egiteko (40).

Gerora konturatu naiz errurik sentitu gabe sexuaz gozatzeko nuen aukera bakarra zela asmatutako egoera hura, edo agian, halakoak amesten nituela abusua zerbait sexya balitz bezala ikasi dudalako txikitatik, nire desioetan txertatzera heldu arte (48).

Bortxaketaren gaiarekin amaitzeko, sistema judizial patriarkalari ere kritika egiten zaio eleberrian, bortxaketaren kulturaren konplize gisa seinalatua delarik:

Ezin dut zehazki gogoratu nola gertatu den eta. Mina geratzen da bakarrik. Min destilatua. Min depilatua. Epailearen aurrean ezingo nuke azaldu. Ez nuke frogarik izango. Mina ez da froga bat. Epaiketa galduko nuke (49).

Ismaelen kontzientzia hartze prozesuari dagokionez, esan genezake amaren ondoezak pizten dizkiola zenbait gogoeta, ordura arte kontuan hartu gabekoez jabetzen baita. Adibidez, besarkadak ematen ez dakiela konturatzen da, eta horrek gorago aipatu dugun hezkuntza emozional patriarkalarekin izango luke zerikusia: «Inork ez zizun erakutsi noiz eman besarkada bat, nola eman behar den, zer egin behar duzun gorputzarekin norbaitek besarkada bat ematen dizun bitartean» (68). Ildo beretik, Libek ere, ospitalera iristen denean ez du asmatzen nola jokatu amarekin:

Ez dakizu nola asmatu zure amarekin. Katalogo batean erositakoak ematen dute harekin erabiltzen dituzun hitzek. Besarkatu egin beharko zenuke, hori da urtebete ama ikusi gabe dauden alabek egiten dutena, baina zuk muxu bat ematea baino ez duzu lortu, kortesiazko muxu bat, eta ez diozu eskua hartu ere zure eskuen artean, pelikuletan egiten duten bezala; ez diozu eskua bekokitik pasatu; ez duzu bere nezeserra arakatu orrazi baten bila, ilea apaintzeko beharra duela eta. Okurritu zaizun bakarra aurrean duen bandejari buruz hitz egitea izan da (139).

Hortaz, bi neba-arrebek afektua erakusteko sentitzen duten ezintasunak zerikusia izango luke familiaren emozioak adierazteko kastrazioarekin. Horri buruz dihardu *Eraikuntzarako materiala* (2021) eleberrian Eider Rodriguez idazleak, zeinak idatzi gabeko familia-konstituzioan biltzen dituen emozioak

adierazteko baimendutako erak. Isilpean transmititutako mandamentuek ere, Rodriguezen eleberrian gertatzen den moduan, presentzia handia dute aztergai dugun obran:

Haren azalaren azpian zuen etxeko isiltasuna gordetzen da, zainetan sartuta dauka. Isiltasun fin bat sartu da beti zure etxean, gas lakrimogenoaren antzera, ateetako zirrikituetatik, erdizka irekitako leihoetatik, harrikoaren zuloetatik. Isiltasun zorrotz bat, arriskutsua, zauriak eragiten dituen. Familietako isiltasunak porlana bezalakoak dira, gogortu egiten dira, eta gero oso zaila da haiek gainetik kentzen. Horregatik zaude hain zurrin, zure giharrak hain gogor, amaren aurrean (139-140).

Bestalde, ama ospitalean ikusten duenean harritu egiten da horren ahul ikusteaz, etxean beti ikusi izan baitu sasoiko eta denei laguntzeko prest: «Arraroa egiten zaizu ama horrela ikustea, bat-batean, hain zaurgarri, hain ahul. [...] Zure ama, gauek egunera, beste bat da. Zaindua izatea behar duen norbait. Lehen aldiz ikusi duzu horrela. Inoiz ez dizkiozu begiak hain txikiak ikusi» (68-69). Halaber, une horretan habetzen da bere aitaren beldurraz: «Inoiz ez duzu pentsatu aitag beldurra senti zezakeenik» (101). Istripua dela eta, gurasoen inguruko irudiak alderantzikatu egiten dira, nolabait esatearren. Zaintzaileak zaindua izateko beharra dauka; beldurrik ez izateko agintzen zuen eta sekula beldur izpirik adierazi ez duena, berriz, beldur da. Are gehiago, aitaren begietara arbuigarria izan den beldur hori Ismaelek beti sentitu izan du zama gisa, betidanik sentitu izan da espero bezain ausarta ez izateagatik errudun:

Zure aitag gutxitan begiratzeko dizu begietara, eta egiten duenean galdera bera ikusten diozu: Begiratu duzu hortik? Ziur ondo begiratu duzula? Eta erru dun sentitzen zara. Errudun gizon baten moduan lanik ez egiteagatik, koldar bat izateagatik, zure arrebarekin Itoizen abestiak kantatzea gustatzeagatik, Libek beti izan dituen «potroak» ez izateagatik. Noizbehinka zuen begiradak gurutzatzen direnean, saihesterik lortzen ez duzunean, erretako paper pusketak bezala lurrerantz poliki doazen partikulak ikusten dituzu oraindik. Zure gizontasuna da, birrinduta (179).

Kasu honetan ere, zama eta erru horien iturria sistema patriarkalak bera-gandik espero denarekin ez betetzea litzateke. Hala eta guztiz ere, ez da Ismael patriarkatuaren mandatuak ez betetzeagatik bere buruarekin gatazkan ageri den pertsonaia bakarra. Zentzu horretan Libe pertsonaiaren kasua ere nabarmentzekoa da. Libek ere aise sentitu du errua, adibidez, Berlinera joateko erabakia hartu zuenean:

— Ez zaitez joan.

— Alde egin behar dut, ama.

— Egizu negatik bada ere —insistitu zizun.

Ama ezagututa, hitz haiek esatea zenbat kostatuko zitzaion imajinatzen duzu orain. Albaindutako ezpainetatik irtendako hitzak. Baina zuk, hala ere, alde

egin zenuen. Eta gaur erruaren zama sentitzen duzu bizkarrean. Ama horrela ikusita, armagabe, dena ahal duen emakumearen mozorrorik gabe, huts egin diozula sentitzen duzu (141).

Libe pertsonaiaren kasuan azpimarragarria da bai Ismaelek eta bai Jasonek askeago eta ahaldunduago hautematen dutela pertsonaiak berak bere burua hautematen duena baino. Jasoneri, adibidez, argi adierazten dio idazle izateari ezin diola uko egin, bere burua lehenetsi behar duela eta heriotza txikiak errefusatu (86). Ismaeli ere feminismoari buruzko lezioak ematen dizkio (149). Hala eta guztiz ere, Ismaelen moduan, gurasoen patroiak errepikatu eta botere harremanak erreproduzitzeko beldur da Libe:

Zuen artekoa ere ez da botere harremanetatik libratu. Denean daude botere harremanak. Baita maitasunean ere. Maitasunean bereziki. Beti da bat maitate zaitut esaten lehena. Harreman horretako galtzailea. Besteak erantzuteko zein hitz erabiltzen dituen berdin da: Badakit esaten ari da. Zalantza sortu zai-zu Kristinekin ez ote zaren errepikatzen ari zure gurasoen eskema bera. Zuk hartzen dituzu erabakiak, eta Kristinek onartu egiten ditu. Duela hamar urte Berlinetik irten nahi du, zure herria ezagutu nahi du, bizitza berri bat hasteko gustatzen zaion jakin nahi du, baina zuk beti ezezkoarekin erantzun diozu. Zure aita izango bazina bezala. Eta zeure burua gorrotatu duzu. Ez zara hain diferentea (198).

Eleberriaren amaiera aldera, ordea, Ismaelen sorkuntza krisiaren erdian, Jasonek bere testua eman egiten dio senarrari, bere izenean argitara dezan. Ekin-tza hau, ordea, ez da guztiz altruista ezta berariazkoa ere. Lehenago, Jasonek senarraren editorea den Jauregiri Jasonek berak idatzitako zirriborroa helarazten dio, behingoz unibertsitate garaiko lagunak idazle gisa ikusiko duelakoan. Hori gertatu beharrean, ordea, Jauregik testu hori Ismaelena dela ematen du ontzat, eta Jasonek, birrinduta, ez dio kontrakorik adieraziko. Egoera horretan, Ismaelek ere inertziaz aurrera jotzen du, ia Jasoneren eleberria bere izenean argitaratzeraino. Azken unean, aldiz, atzera egiten du eta horrek, Colbert-Goi-coa eta Martin-Etxebesteren (2021) esanetan, ebasketa intelektualaren gatazka modu positiboan ebaztea ahalbidetzen du. Autoreen aburuz (*ibid.*), Ismaelek Jasoneren eleberria argitaratzeari uko egitea eleberriaren konpromiso politikoaren eta saiakera testuaren ezaugarrien adierazgarri dira. Izan ere, ekintza horren ondorioz, Ismaelek eta Jasonek eskutik helduta amaitzen dute, adiskidetzeari atea zabalduz: «Ismaelekin zerotik hasteko lurralde lau bat ikusi nuen nire begien aurrean» (204). Zentzu horretan eleberriaren tesia betetzeko helburuz idatzitako amaiera litzateke *Aitaren etxea* eleberriarena, azken finean, kontuan hartzen badugu bai Ismaelek eta bai Jasonek erabat aldenduta dagoen bikote bat irudikatzen dutela, ia elkarri begiratzen ez diona eta apenas elkar ukitzen duena, beren artean isiltasuna eta komunikazio eza nagusi dela iradokiz, zaila egiten da sinestea jabetze intelektualaren saiakera baten ostean harreman hori besterik gabe berpiztu daitekeenik. Are gehiago, ikusteke legoke, nolakoa litzatekeen maila teorikoan gauzatutako genero identitatearen deseraikuntza prozesua praktikan, bai bikote harremanari dagokionez eta baita guraso helduen zaintzari dagokionez. Nor egingo ote zen, azkenean, aita eta amaren zaintzaren kargu?

Laburbilduz, pertsonaien arteko harremanei eta beren kontzientzia garape-nei dagokienez, esan genezake, batetik, Ismaelen gurasoak bigarren mailako pertsonaiatzat jo ditzakegula, nolabait atzeko oihal gisa jarduten baitute eta ez baitute garapen psikologikorik erakusten. Ezer baino gehiago Ismaelen eta Liberen baina, batez ere, Ismael pertsonaiaren oinarri psikologikoak ezartzea eta irakurleari pertsonaia nagusi horren jarreraren zergatien jatorria ulertzen laguntzea litzateke bigarren mailako pertsonaia horien funtzioa. Libe pertsonaia ere, zentzu horretan, apur bat bigarren planoan geldituko litzateke, batez ere bere traman ez delako bereziki sakontzen. Beste bi pertsonaiei eskaintzen zaien arretarekin alderatuta nahiko eskasa da Libek eleberrian betetzen duen espazioa. Hala ere, pertsonaia nagusien kontzientzia prozesuetan laguntzen duen pertsonaia dela esan dezakegu. Azkenik, bi pertsonaia nagusien kasuan, nabarmena da beren barne-mundua dela ongien ezagutarazten zaiguna eta bi pertsonaia horiek direla garapen psikologiko nabarmenena erakusten dutenak, bakoitzak bere erakuntza eta deseraikuntza prozesua modu eta erritmo desberdinean bizi duelarik.

IV.- ONDORIOAK

Euskal literaturaren esparruan ezagunena den «aitaren etxearekin» zerikusi gutxi du Jaiok deskribatu digun etxeak. Agian zerikusi gutxi duela esan baino, egokiagoa litzateke «aitaren etxea» oso bestelako ikuspegi batetik irudikatu duela baieztatzea. Genero mandamentuak transmititzen diren lekua da Karmele Jaioren *Aitaren etxea*, familiako harremanak sortu, elikatu eta definitzen diren espazioa, eta auzi horrek berebiziko garrantzia du protagonisten garapenean, helduaroko bizimodua eta beren harremanak determinatzen baititu, bai, behintzat, balio ez dieten mandamentuak atzean uztea lortu arte. Zentzu horretan esan genezake Jaiok, nolabait, Arestiren poemaren irakurketa gaurkotu bat planteatzen duela bere eleberrian edo, behintzat, mitifikatutako eta lelo gisa behin eta berriro errepikatutako «nire aitaren etxea defendatuko dut» poemaren esanahia gutxienez zalantzan jartzeko ariketa proposatu duela.

Aitaren etxea eleberria senideen arteko genero harremanen argitan aztertu ostean, esan genezake nahiko modu errelistan irudikatu dituela Jaiok pertsonaien arteko dinamika, botere-harremanak eta identitatearen eraikuntza eta deseraikuntza prozesuak. Funtsean, esan genezake testuaren hasieran kokatzen den perdigoiei buruzko metafora honek bikain laburbiltzen duela eleberriaren mamia:

Kartutxo madarikatuak, behin zuhaixkaren barruan sartuta, ez dago haiek handik ateratzerik. Inor ere ez da ahalegintzen; azken finean, zer dira ba, kartutxo zaharrak besterik ez. Nola azaldu inori, ugertuta egon arren, han barruan tau-paka segitzen dutela; ikusezin izan arren, bizirik daudela oraindik (13).

Testuaren helburu nagusietako bat belaunaldiz belaunaldi irentsietako patriarkatuaren mandatuek gorputza zizelkatzen digutela ohartaraztea litzateke. Eleberrian horren unibertsaltzat jo izan diren aginduez jabetzea eta haien pre-

sentziaz ohartzea zaila dela azpimarratzen da, eta horiek errotik aldatzea ez dela lan samurra. Hala ere, eleberriaren amaieran egingarri gisa planteatzen da saldoan doan hegazti taldearen norabidea aldatzea. Bere garaian Ismaelen aita emazteak gurutzegrama egitean esaten zizkion hitzen lorpenaz jabetzen zen moduan, halaxe jabetzen da, ia, Ismael Jasone emaztearen obraz. Azken unean, ordea, atzera pausua ematen du, patroï zaharren dinamika hausteari ekiten ari zaiola iradokiz. Amaiera hori, ordea, ez zaigu erabat sinesgarria begitantzen, kontuan izanik oso modu errealistan irudikatutako familia baten genero dinamikek ez gaituztela amaiera horretara eramaten.

Hala eta guztiz ere, artikuluan zehar aipatu dugun moduan, eleberriak askotariko gaiak lantzen ditu eta testuaren analisiak badu sakonago lantzeko mamirik, esate baterako gatazka armatuaren gaiaren trataera eta egiletza eta generoaren arteko gurutzaketarena. Esan bezala, artikulua luzerak mugatu gaitu, baina zabalik gelditzen da generoaren beste dinamika batzuen analisirako gonbita.

V.- BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, U. (2019) *Kontrako eztarritik*, Zarautz, Susa.
- Aretxaga, B. (1988) *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*, Donostia, Baroja.
- Artetxe, E. (2019) *Karanbola hirukoitza*, EHAZE, Azpeitia.
- Artetxe, M. + Labaka, A. (2019) *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen*, Bilbo, UEU.
- Askoren artean (2008) *Haginetako mina*, Tafalla, Txalaparta.
- (2011) *Emekiro: Verhalen van jonge schrijfsters uit Baskenland*, Amsterdam, Zirimiri Press.
- (2012) *Our Wars Short Fiction on Basque Conflict*, Nevada, University of Nevada.
- (2014) *Nuestras guerras, relatos sobre los conflictos vascos*, Madril, Lengua de trapo.
- (2016) *Best European Fiction 2017*, Victoria, Dalkey Archive Press.
- Bal, M. (2004) *Narratology* [bigarren edizioa], Toronto, University of Toronto Press.
- Bobes Naves, C. (1993) *La novela*, Madril, Síntesis.
- Castro, M^a do M. + Dhawan, N. (2010) «La violencia de la representación y la representación de la violencia» in Martín, B. *Violencias (in)visibles. Intervenciones feministas frente a la violencia patriarcal*, Barcelona, Icaria, pp. 15-27.

- Egaña, I. (2021) «Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan. Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat», *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 132, uztaila-abendua, pp. 375-402. DOI: <https://doi.org/10.35462/flv132.5>
- Colbert-Goicoa, D. + Martin-Etxebeste, J. (2021) «Una nueva ventana para La casa del padre. Análisis de la novela de Karmele Jaio», *Rassegna iberistica*, 44(115), pp. 217-228. DOI 10.30687/Ri/2037-6588/2021/16/013
- García-Calvente, M^a del Mar + Mateo-Rodríguez, I.+ Maroto-Navarro, G. (2004) «El impacto de cuidar en la salud y la calidad de vida de las mujeres», *Gaceta Sanitaria*, 18(2), pp. 83-92.
- Gaseni, J. M. eta Esparza, I. (2015) *La identidad en la literatura vasca contemporánea*, Zurich, Peter Lang.
- Goikoetxea, J. (2020) in Sagastizabal, M. *Hiruki gatazkatsua*, Zarautz, Susa.
- Jaio, K. (2004) *Hamabost zauri*, Donostia, Elkar.
- (2006) *Amaren eskuak*, Donostia, Elkar.
- (2007) *Zu bezain ahul*, Donostia, Elkar.
- (2010) *Musika airean*, Donostia, Elkar.
- (2012) *Ez naiz ni*, Donostia, Elkar.
- (2015) *Orain hilak ditugu*, Donostia, Elkar.
- (2019) *Aitaren etxea*, Donostia, Elkar.
- (2019) *Aitaren etxea*, Donostia, Elkar.
- Lasarte, G. + Perales-Fernández-de-Gamboa, A. (2021) «Karmele Jaioren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista: proposamen metodologiko berritzailea», *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 132, uztaila-abendua, pp. 497-514. doi: <https://doi.org/10.35462/flv132.8>
- Moers, E. (1977) *Literary Women*, Anchor Press/Doubleday, Garden City.
- Otaegi, L. (2019) «Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean. Isiltasun garaietarako kodea», *Euskera*, 63, pp. 789-827.
- Otegui Pascual, Rosario (2000) «Factores socioculturales del dolor y el sufrimiento», in Perdiguero, E. + Comelles, J.M. (ed.) *Medicina y Cultura. Estudios entre la antropología y la medicina*, Barcelona, Edicions Bellaterra, pp. 227-248.
- Page, R. E. (2007) «Gender» en: Herman, D. (Ed.) (2007) *The Cambridge Companion to Narrative*, Cambridge, Cambridge University Press, pp. 189-202.
- Pateman, C. (1995) *El contrato sexual*, Barcelona, Anthropos.
- Pérez Fontdevila, A. + Torras Francès, M. (2015) «La autoría a debate: textualizaciones del cuerpo-corpus (una introducción teórica)», *Tropelías. Revista*

- de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada*, 24, pp. 1-16. https://doi.org/10.26754/ojs_tropelias/tropelias.2015241138
- Retolaza, I. + Sarriugarte, D. (2015) *Gizontzeko (andretzeko) garaia. Gabriel Arestiren imaginario poetikoa eta genero-eraikuntzak*, HEA kultur elkarte, Ea.
- Rodriguez, E. (2019) *Idazleen gorputzak*, Zarautz, Susa.
- (2021) *Eraikuntzarako materiala*, Zarautz, Susa.
- Russ, J. (2018) *Cómo acabar con la escritura de las mujeres*, Barcelona, Dos Bigotes.
- Sagastizabal, M. (2020) *Hiruki gatazkatsua: etxeko zaintza lana, enplegua eta parte hartze soziopolitikoa*, Zarautz, Susa.
- Scott, J. W. (1986) «Gender: A Useful Category of Historical Analysis», *The American Historical Review*, 91(5), pp. 1053-1075.
- Segarra, M. + Carabí, A. (ed.) (2000) *Feminismo y crítica literaria*, Barcelona, Icaria.
- Toolan, M. (2001) *Narrative: A Critical Linguistic Introduction*, London, Routledge.
- Urkiza, A. (2006) *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun, Alberdania.
- Yuval-Davis, N. (1997) *Gender and Nation*, Londres, Sage.
- Zapata, M. (2016) «Suspertzea depresioetan: haragiztaturiko ondoez sozial gorputzuaren aurrean, gorputz agentea» in Esteban, M. L. + Hernandez, J. M. (ed.) (2016) *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, Bilbo, UEU.